

Diru sarrerak

Gure enpresak gauetan emakumeak modu seguruan etxera eramateko zerbitzua eskaintzen du. Zerbitzua diseinatzeko, lehenik eta behin jakin behar izan dugu zenbat eta nola ordaintzeko prest dagoen gure bezeroa. Egindako inkesten arabera, emakume gehienak 10 eta 15 euro artean ordaintzeko prest daude hiri barruko ibilbide estandar baten truke; hala ere, eskaera handitzen den egunetan (Aste Nagusia, Gabon gaua edo bestelako jai berezietan), prezioa pixka bat igo daiteke, 14-15 eurora arte, eskaera handiagoa delako eta zerbitzuaren kostua ere altuagoa izan ohi delako.

Ordainketara dagokienez, bezeroak bi ordainketa egin behar izango dituzte. Batetik, ordainketa bat egin behar dute zerbitzua erabiltzen duten bakoitzean ordainketa izango da 0,30 € kilometro bakoitzeko. Bestetik, hileko kuota ere ordainduko dute; 20-25 euroko hileko harpidetzak hiru bidai arte barne hartuko ditu eta gehigarriak aparte ordainduko dira.

Oinarrizko zerbitzuaz gain, gure enpresak baditu diru-sarrera osagarriak lortzeko beste modu batzuk ere. Lehenik, publizitatea izango da diru-iturri nagusietako bat: gure ibilgailuak eta aplikazioa tokiko enpresen edo erakundeen babesleku bihurtu daitezke, eta horrek urteko diru-sarrerak ekarriko dizkigu. Horrez gain, aplikazioaren bidez lotutako zerbitzu osagarriak salduko ditugu, hala nola gaueko ordutegi beranduenetan segurtasun “plus” bat 2 euroko gehigarri batekin, gaueko 1:30etatik goizeko 5:00etara, lagun batekin bidaiatzeko aukera prezio gorakada txiki batekin edo jaiegunetan alde aurreko erreserbak kostu gehigarri. Aplikazioaren erabilera bakoitzarengatik 2 euro arteko tasa txiki bat kobratuko dugu erabilera bakoitzagatik.

Hasierako inbertsioa planifikatzean, kalkulatu dugu diru-sarrera guztien banaketa honelakoa izango dela gutxi gorabehera: %60 bidaia bakarren ordainketetatik etorriko da, %15 hileko kuotetatik, %20 publizitatetik eta gainerako %5a aplikazioaren bidezko gehigarrien eta tasen bidez. Banaketa horri esker, enpresak egonkortasuna izango du eta hasierako inbertsioa lehen urtean berreskuratzeko planifikatu dugu eta horren asmoa daukagu.